

«20.000 legoako bidaia itsaspetik» obraren 150. urteurrenean

(In the 150th Anniversary of «20.000 Thousand Leagues Under the Sea»)

Beñat Zaldibar Aranburu*

Zelulen Biologia Ingurumen Toxikologian (ZBIT) ikerketa taldea,
Zoologia eta Animalia Zelulen Biologia Saila, Zientzia eta Teknologia Fakultatea eta
Plentziako Itsas Estazioa (PiE), Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU (Euskal Herria)

LABURPENA: 1869 eta 1870. urteen bitartean Jules Vernek bere obra nagusietako bat plaza-ratu zuen; «20.000 legoako bidaia itsaspetik» hain zuzen. Nobela hau Vernek seguruenik momentura arte sortu zuen nobelarik handiena da. Lan erraldoi horretan, *Nautilus* urpeko ontzi mitikoari esker itsasoetako sekretuak azaleratzen zaizkigu bidaia entretengarri bezain hezitzaile batean, gaztetxoei (eta ez horren gaztetxoei) itsasoaren ikerketari buruzko sarbide paregabea eskainiz. Artikulu honetan, nobelaren eta haren autorearen inguruko zenbait gogoeta azaltzen dira; autoreak erakusten duen jakintza zientifiko eta koherentzia handia (baina inperfektua) eta Vernek geroago etorriko diren autoreengan duen eraginari buruzko hausnarketa txiki bat ere azaltzen da. Izan ere, ez dira egunero 150 urte betetzen, eta nobelaren garrantziak eta eraginak merezi du esfortzu txiki hau burutzea.

HITZ GAKOAK: Jules Verne, 20.000 legoako bidaia itsaspetik, *Nautilus*, Nemo kapitaina.

ABSTRACT: *Between the years 1869 and 1870. Jules Verne published one of his greatest works; «20,000 leagues under the sea». This novel, is probably the biggest novel ever to date Verne has published. In this massive work, Nautilus, the legendary submarine, reveals the secrets of the seas in an entertainer as an entertainer voyage. Youngsters (and not that youngsters) are offered an unrivaled access to sea research. In this article, some considerations on the novel and his author appear; It also explains small thoughts on the author's scientific knowledge and coherency (although imperfect) in the work and on the influence of Verne on later authors. In fact, not always 150 years are fulfilled and the importance and influence of the novel is worth the effort to carry out.*

KEYWORDS: *Jules Verne, 20.000 leagues under the sea, Nautilus, Captain Nemo.*

* **Harremanetan jartzeko / Corresponding author:** Beñat Zaldibar Aranburu, CBET Research Group. Dept. Zoology and Animal Cell Biology, Faculty of Science and Technology, UPV/EHU, Barrio Sarriena s/n, E-48940 Leioa. Bizkaia. Euskal Herria. – benat.zaldibar@ehu.eus – <https://orcid.org/0000-0002-5528-451X>.

Nola aipatu / How to cite: Zaldibar Aranburu, Beñat (2020). «20.000 legoako bidaia itsaspetik» obraren 150. urteurrenean»; *Ekaia*, ale berezia 2020, 15-28. (<https://doi.org/10.1387/ekaia.20942>).

Jasoa: 19 ekaina, 2019; Onartua: 05 azaroa, 2019

ISSN 0214-9001 - eISSN 2444-3255 / © 2020 UPV/EHU



Obra hau Creative Commons Atribución 4.0 Internacional-en lizentziapean dago

1. SARRERA¹


Zer egiten du literaturari buruzko artikulu batek zientzia- eta teknika-dibulgazioa bultzatzen duen aldizkari batean? Eiderrek eta Oihanek itsasoari buruzko ale berezi bat plazaratzeko asmoa jakinarazi zidatenean, ez nuen asmorik gai honen inguruko artikulurik idazteko. Baina handik gutxira bizitzaren gorabeherak txikitatik horrenbeste maite nuen (eta dudan) Jules Verneren bidean jarri ninduten, eta hara non konturatzen naizen 2019. eta 2020. urteetan haren obra ezagunetako baten 150. urteurrena betetzen dela. Urtebetetze biribila eta, gainera, zuzen-zuzenean itsasoarekin erlacionatutako obrarena. Bestalde, ezin dugu ahaztu norainoko eragina izan duen Vernek zientzialariengan eta teknikaren garapenean [1]. Beraz, zergatik ez ospatu itsasoaren festa den ale berezi hau zientzialariok itsasoaren sekretuak agerian jartzera bultzatu gaituen obra eta egilearekin?

«*Vingt mille lieues sous les mers: Tour du monde sous-marin*» edo «20.000 legoako bidaia itsaspetik» obra folletoi moduan plazaratu zen 1869ko martxoa eta 1870ko ekaina bitartean «*Magasin d'éducation et de récréation*» aldizkarian. Lan hau, Verneren beste hainbat maisulaneekin batera, «*Voyages extraordinaires*» (Bidaia apartak) seriearen parte da. Verneren lanak serie batean publikatzea Verneren editore Jules Hetzel-i bururatu zitzaion, eta, «*Voyages et aventures du capitaine Hatteras*» («Hatteras kapitainaren bidaiak eta abenturak») nobelaren hitzurrean esaten duen moduan, helburua zen «eguneko zientziak landu dituen ezagutza geografiko, geologiko, fisiko eta astronomikoak laburbiltzea eta propioa duen egitura erakargarrian unibertsoaren historia beregitea» [2].

«20.000 legoako bidaia itsaspetik» obraren nondik-norakoak nahiko ezagunak dira. Pierre Aronnax biologoa, zerbitzari duen Conseil-ekin batera, *Abraham Lincoln* gerrauntzian ontziratzen dira ustez momentura arte ezezaguna zen bale espezie baten bila. Gerrauntzian Ned Land kanadiar arpoilariaren lagun egiten dira, eta azkenik, Pazifikoan ustezko balea aurkitzen dutenean, untzitik erori eta «balea» gizakiak sortutako urpeko ontzi bat dela konturatzen dira. Aronnax, Conseil eta Land, *Nautilus* ontziaren eta haren jabe den Nemo kapitainaren preso/gonbidatuak izatera pasatzen dira. Urpeko ontzia, ozeanoetan zehar mugitzen da eta bidaia osoan zehar Aronnax irakasleak hango eta hemengo bizidunei buruzko informazioa eskaintzen digu. Horrela, Pazifikoan balezta-arrainak, arrain gastakak, igarabak edo marmoka espezie desberdinak deskribatzen dizkigu. Torres itsasarte zeharkatzerakoan istripua izan zuten, eta hango

¹ «Jules» izena mantendu du: izan ere, agertzen diren beste pertsonetan jatorrizko izena mantendu dut eta arraro egiten zitzaidan «Julio» ematea.

biztanleen eraso jasotzen ditu. Ozeano Indikoan, perla ekoizle diren ostrei buruzko informazioa ematen zaigu eta marrazoekin ere gorabeherak dituzte bidaiako pertsonaiek. Itsaso Gorrian zehar, bertako belakiak deskribatzeaz gain, gaur egun desagertzeko zorian dagoen dugong baten arrantza ere deskribatzen zaigu. Mediterraneoan zeharkatu eta gero, *Nautilus* urpeko ontzia Atlantikora zeharkatzen hasten da eta Atlantida mitikoa bisitatzen du, 16.000 metroko sakoneraraino murgilduz, eta baita Hego Polara heldu ere. Bidaia horretan zehar, askotariko espezieen deskribapenak egiten zaizkigu: Atlantikoko arrainak (tintoletak, ezpata-arrainak, ataloak...), ugaztunak (izurdeak, zeroiak, mortsak...), hegaztiak (petrelak, pinguinoak...) edo ornogabeak (aktiniak, krustazeoak...) Lucaya uhartedian txibia erraldoiekin borroka epikoa izan eta gero, Atlantiko iparraldera jotzen dute azkenean, eta *Nautilus* urpeko ontzia *Maelstrom* erraldoi batean harrapatuta geratzen da (1. irudia). Bidaia 1867ko azaroan hasi eta 1868ko ekainera arte luzatzen da. Itsaspeko bidaia horretan, Nemo kapitaina dute gidari eta itsaspeko sekretuak agertzeaz gain, agerian geratzen dira *Nautilus* ontzi miragarriaren funtzionamendua eta sekretuak.



1. irudia. *Nautilus* urpeko ontziaren bidaia eta bidaiaren gertatutako pasadizo esanguratsu batzuen irudi eskematikoak.

2. NEMO KAPITAINA

«Je ne suis pas ce que vous appelez un homme civilisé! J'ai rompu avec la société toute entière pour des raisons que moi seul j'ai le droit d'apprécier. Je n'obéis donc point à ses règles, et je vous engage à ne jamais les invoquer devant moi!»²

Vernerren obraren barruan, eta ez soilik «20.000 legoako bidaia itsas-petik» nobelan agertzen diren pertsonaia guztien artean, seguruenik interesgarriena eta zeresan gehien sortzen dituen Nemo kapitaina da (2. irudia). Izenetik abiatuta (Nemo; latinez «inor ez»), misterioz betetako pertsona bezala agertzen zaigu. Aronnax irakasleari *Nautilus* urpeko ontziaren eta itsas hondoetako sekretuak erakusten dizkion arren, bere buruari buruz hitz egiterakoan guztiz hermetiko azaltzen da, eta narrazio osoan zehar haren izaera edo motibazioei buruzko pintzelada gutxi batzuk soilik ezagutuko ditugu. Ez da nobelako pertsonaia gaiztoa, nahiz eta zenbait momentutan krudelkeria handia erakutsi, ezta heroi bat ere, nahiz eta beste momentu batzuetan sekulako eskuzabaltasuna erakutsi. Nemo zoezer gehiago edo zoezer handiagoa da. Ez dezagun ahaztu Ulisesek Polifemo erraldoiaren aurka borrokatzen denean Homeroren «Odisea» poema epikoan *Nemo* izena hartzen duela. Tamaina horretako pertsonaia da. Misterio horretan egon daiteke seguruenik pertsonaiaren arrakastaren eta popularitasunaren zati handi bat.

Beste zati bat ezagutzen ditugun xehetasun gutxi batzuei dagokie. Nemok zapaldutako herrien alde jartzen du bere *Nautilus* urpeko ontzia, eta munduan dagoen sufrimendua ezagutu eta haren kontra borrokatzen da; beraz, haren papera ez da soilik itsasoaren miresle eta arakatazaileria izatera mugatzen. Baina, zer puntutaraino mantentzen du atzean utzi duen gizartearekin harremana? Hori da erantzunik gabe geratzen den galderetako bat. Nobelaren zenbait momentutan, bere «gonbidatuak» inolako azalpenik gabe giltzaperatzen ditu urpeko ontziaren getetan. Zer gertatzen da bitartean? Nobelaren amaieran, zer gertatzen da Nemo kapitainarekin? Erantzun gabeko hainbat eta hainbat galdera daude Nemo kapitainaren inguruan, eta horrek oso pertsonaia erakargarria bilakatzen du.

² «Ni ez naiz gizon zibilizatua, zuentzat behintzat! Nik hautsi ditut gizartearekin nituen loturak; horren zergaitiak neuri bakarrik dagozkit. Ez nago gizartearen arau bakar baten mende ere, eta, nire aurrean, arauak ez itzazu berriz aipatu [3].



2. irudia. Nemo kapitainaren irudiak. (A) «20.000 legoako bidaia itsaspetik» nobelan (1866-1869) azaltzen den Édouard Riou-ren ilustrazioa. (B) «20.000 legoako bidaia itsaspetik» filmean (1916) Allen Holubar aktoreak interpretatuta (Universal Pictures). (D) «La liga de los hombres extraordinarios» komikian (2004) azaltzen den Kevin O'Neill-en ilustrazioa (DIC Entertainment). (E) «20.000 legoako bidaia itsaspetik» filmean (1954) James Mason aktoreak interpretatuta (Walt Disney Pictures).

Are gehiago, Nemo kapitainak Vernerren beraren ezaugarri asko ditu. Halaber, Pierre-Jules Hetzel-ek (Vernerren editorea) Nemoren deskribapena irakurri eta gero, liburuen ilustratzaile Édouard Riou-i eskatu zion autorean oinarritzeko Nemo ilustrazioetan jartzerakoan [4]. Dirudenez, Hetzel-entzat Nemo-Verne lotura hau oso agerikoa da, obraren lehenengo zatian behintzat. Bigarren atalarekin arazo gehiago ditu: Nemo pertsonaia krudelegia azaltzen da editorearen gusturako.

«—*Le Vengeur! m'écriai-je.*

—*Oui! monsieur. Le Vengeur! Un beau nom!*» murmura le capitaine Nemo.»³

Seguruenik, Verne ere konturatzen da pertsonaia honek duen indarraz eta sortzen duen miresmenaz; izan ere, pertsonaia haren bi lan hauetan agertzen da: «*L'Île mystérieuse*» (Uharte misterioitsua; 1874) eta «*Voyage à travers l'impossible*» (Ezinezkoaren zeharreko bidaia; 1882); azken honetan haren agerpena ia anekdota hutsa da, hori bai.

³ «Mendekatzailea! Ohikatu nuen. Bai jauna! Mendekatzailea! Izen ederra!— esan zuen xuxurlaka Nemo kapitainak [2].


3. NAUTILUS URPEKO ONTZIA

Literaturaren mundu akademikoak ez zuen Verne goi-mailako idazleztat onartu, besteak beste Vernereren pertsonaiek ez ziotelako historiari kutsu dramatikorik gehitzen: «perfektuegiak» ziren. Vernereri haur eta gazteen-tzako literatura egiten zuela aurpegiatu izan zaio, publiko helduarentzat Vernereren lanak sinpleegiak direla. Beharbada horregatik ez zen Frantziako Akademian sartu.

Pertsonaia karismatiko eta ahaztezinak sortzeko zituen arazoak egiazkoak badira ere, haren pertsonaiek sortzen zituzten tresnak eta asmakizunak deskribatzerakoan, ordea, paregabea da Vernereren talentua. Vernereren irudimen zoragarritik atera ziren asmakizun guztien artean, *Nautilus* urpeko ontzia goiko postuetan kokaturik dago, zalantzarik gabe. «20.000 le-goako bidaia itsaspetik» nobelaren beste pertsonaia bat da. Berari esker, itsasoetako azken bazterrak bisitatu ditzakegu eta zuzenean goza dezakegu ozeanoek eskaintzen dizkiguten ikuskizun miragarriez.

Vernereren nobelan, *Nautilus* ontzia deskribatzen denean, zigarro itxurako 70 metro luze eta 8 metro zabal duen egitura dela esaten da (3. irudia). Nemo itsas hondoetako errege bilakatzen duen tresna sortzeko, Vernek seguruenik bi modelo nagusi izan zituen buruan. Alde batetik, 1866. urtean New Yorkera bidaiatzen du *Great Eastern* itsasontzian, eta haren makineria behin baino gehiagotan bisitatu zuen ontziak bultzatzen zuen potentziamekanismoa aztertzeke eta hari buruzko informazioa eskuratzeko. Ontziaren krosko bikoitzaren egitura ere lagungarria suertatu zitzaion *Nautilus* diseinatzeke orduan. Bestetik, Siméon Bourgeois-ek egindako *Plongeur* urpeko ontzia (1863) eta Pariseko Nazioarteko Erakusketan erakutsi zena, 1867. urtean ere, *Nautilus* sortzeko inspirazioa izan zen. *Plongeur* dezente txikiagoa den arren, antolaketa-ereduak eta hainbat ezaugarri komunak dituzte bi urpeko ontziek.

Nahiz eta *Nautilus* bezalako urpeko ontzi baten ezaugarriak (abiadura, mugitzeko erraztasuna, sakonera...) benetako urpeko ontzi batean islatzeko 100 urte inguru itxaron behar izan ziren, benetako modeloetan oinarrituta egoteak nolabaiteko sinesgarritasuna ematen dio Verne-ren urpeko ontziari. Nobelan dauden akatsak alde batera utziz (ia berriz kargatu behar ez diren bateria erraldoiak, urpeko ontzi horretan milaka metroko sakonerara jaisteko aukera edo urpeko ontziak lotuta daraman ontzi txiki, arin eta zoragarria), momentuko errealitate teknologikoan errotuta egoteak ikaragarri aberasten du lana. *Nautilus*, beraz, ez dago nobelagile baten fantasiatik sortua: XXI. mendean dauden diseinuen aurrezirriborroa da [5].



3. irudia. *Nautilus* urpeko ontzia. (A) «20.000 legoako bidaia itsaspetik» nobelan (1866-1869) azaltzen den Édouard Riou-ren ilustrazioa. (B) «20.000 legoako bidaia itsaspetik» filmean (1916) (Universal Pictures). (C) «20.000 legoako bidaia itsaspetik» filmean (1985) (Burbank Films). (D) «20.000 legoako bidaia itsaspetik» filmean (1985) (Burbank Films). (E) «20.000 legoako bidaia itsaspetik» filmean (1954) (Walt Disney Pictures). (F) «La liga de los hombres extraordinarios» filmean (2003) (20th Century Fox Pictures).

Nautilus urpeko ontziak, gainera, garaiko (eta etorkizuneko) urpeko ontziekin alderatuz, barnean liburutegi zoragarria eta jauregi batean egon daitezkeen artelanak gordetzen ditu. Maisulanak gordetzen dituen maisulan bat da [6]. Vernerren asmakizun gehienak bezala, *Nautilus* ontzia bere espezieko indibiduo bakarra da, ingeniaritza tresna bikaina eta artelana, aldi berean. Izena izateak (*Nautilus*) ere nolabaiteko indibidualitatea ematen dio urpeko ontziari. *Nautilus* bakarra dago eta asmakizun honen diseinu, garapen eta erabilpenean diruak ez du inolako garrantzirik (Verne-ren asmaki-

zunen beste ohiko ezaugarri bat) [7]. Egia esan, itsasoetako sekretuak deskribatzeko, ez zait garraio bide hoberik bururatzeko.

4. VERNERI BURUZ

Arthur C. Clarke nobelagilearen hitzetan, «Ezinezkoa da beste Jules Verne bat izatea, historiaren une errepikaezin batean jaio zelako. Lurrun-makina mundu materiala eta aurkikuntza zientifikoak eraldatzen ari zen urteetan jaio zen. Aldaketa hauek guztiak besoak zabalik jaso zituen lehen idazlea izan zen, eta ikerketa zientifikoa abentura zoragarriena izan zitekeela aldarrikatu zuen. Horregatik, ez da sekula modaz kanpo egongo...» [4].

4.1. Biografia laburtua

Jules Gabriel Verne, Nantes-en jaio zen 1828ko otsailaren 8an. Aita prokuradorea zuen, eta Nanteseko burgesiaren parte zen. Aita poeta afizionatua izanik, izeba-osabak bezala, gaztetatik oso ohikoa zen etxean poema eta kantuak sortzea. Vernereren etxean «*Le Magasin Pittoresque*» bezalako aldizkariaren harpidedunak ziren, eta aldizkari horretan, ingeniari, zientzia, geografia edo industriaren inguruko berriak jasotzen zituzten. Beraz, momentuko berrikuntzen berri ere bazeukaten Vernereren etxean. Beste alde batetik, Nantes merkataritza-portu garrantzitsua izanik, gaztetan esklabu, azukre edota egur exotikoen etengabeko garraioa ikusita, ez da harriztekoa ume guztiak batetik itsasora, itsasontzietara eta abenturetara begira egotea eta baita urrutiko lurralde edo historiekin amestea ere. Vernek gazte-gaztetik erakutsi zuen geografiarekiko zaletasun handia.

Edozein kasutan, aitaren presioak zirela eta, Parisera joan zen Zuzenbidea ikastera, baina hasieratik nabaritzen da ez dituela gustuko ikasketak, eta literaturan murgildu zen. Garai haietan, Pariseko kultura-munduarekin bat egin zuen, eta, besteak beste, Dumas aita-semeen lagun egin zen. Haren hasierako lanak nagusiki maitasun-poemak eta antzerkiak izan ziren. 1852. urtean, eta Pitre Chevalier «*Musée des Familles*» aldizkari zientifiko-kultural dibulgatzailearen zuzendariaren eskutik, bere lehenengo nobela plazaratzen du: «*Martin Paz*» (Marin Paz) (1852). Urte batzuk geroago, nolabait mundu osoan aintzatespena eskainiko dion lehenengo lana plazaratzen du, «*Un hivernage dans les glaces*» (Izotzen arteko negute bat) (1855), hura ere «*Musée des Familles*» aldizkarian. 1857. Urtean, Honorine Deviane-rekin ezkondu eta emaztearen anaiaren bitartez finantza-munduan eta burtsan hasi zen lanean. 1861. Urtean, haien seme Michel jaio zen. Honorine-k aurreko ezkontza batetik bi alaba zituen, eta Jules-ek bere zaintzapean hartu zituen hasiera-hasieratik.

1862. urtea guztiz garrantzitsua da Vernerentzat: Pierre-Jules Hetzel editorea ezagutu zuen, eta Hetzel eta Jean Mace-k argitaratutako «*Magasin d'éducation et de récréation*» aldizkarian «*Cinq Semaines en ballon*» (Bost aste globoan) argitaratu zuen. Liburua oso arrakastatsua izan zen, eta genero berri baten sorrera ekarri zuen.

Hetzel-en laguntzarekin (eta, zergatik ez esan, haren presiopean), eta horrenbeste maite zituen sumendiak bezala (haren lanetan askotan agertzen dira), Vernek liburu zoragarriak bata bestearen atzetik plazaratu zituen, mugarik gabeko sormen-gaitasuna erakutsiz: «*Voyages et aventures du capitaine Hatteras*» (Hatteras kapitainaren bidaia eta abenturak; 1864), «*Voyage au centre de la Terre*» (Lurraren erdirainoko bidaia; 1864), «*De la Terre à la Lune*» (Lurretik Ilargira; 1865), «*Les Enfants du capitaine Grant*» (Grant Kapitainaren semeak; 1865), «*Vingt mille lieues sous les mers: Tour du monde sous-marin*» (20.000 legoako bidaia itsaspetik; 1869-1870), «*Le Tour du monde en quatre-vingts jours*» (Munduari itzulia 80 egunetan; 1872), «*L'Île mystérieuse*» (Uhartea misterioitsua; 1873), «*Michel Strogoff*» (Migel Strogoff; 1876) edo «*Un Capitaine de quinze ans*» (Hamabost urteko kapitaina; 1878): hona horren adibide garbiak.

Hetzel-ekin lanean hasi zenetik, Vernek ez zuen beste editorerik izango, eta nahiz eta lan-baldintzak onenak ez izan (soldata ez zegoen gaizki, baina urtero bi liburu idatzi behar zituen, eta Hetzel-ek irabazien zati handiena eskuratzen zuen), liburuak antzerki-lan bilakatu zituenean, arrakasta handiz («Munduari itzulia 80 egunetan» eta «Migel Strogoff» nagusiki), Vernereren egoera ekonomikoa asko hobetu zen. Nahiz eta bere semearekin gorabehera asko izan, batez ere Michelen gaztaroen, 1886. urtean gertatutako pasadizo berezi batek (Gastonek, Julesen ilobak, tiro bat eman zion hankan, oraindik arrazoa ez dakigula) Jules eta Michel asko hurbiltzen ditu elkarrengana, eta tiroak sortutako mugiezintasuna dela eta, Michelek aitari lagundu zion hainbat lanetan. Jules 1905eko martxoaren 24ean hil zen, Amiens-en. Hala ere, Michelen parte hartzearekin, oraindik ere erdizka zeuden zenbait lan plazaratu ziren. Haien artean, seguruenik aipagarriena, «*L'Agence Thompson and Co*» (Thompson Agentzia eta Konpainia) (1907).

4.2. Nobelaren garaia

Ikusi dugunez, «20.000 legoako bidaia itsaspetik» nobela frantziar autoren garai literario onenean idatzi zen. Inspirazioa nondik zetorkion ondo ez dakigun arren, hainbat gutuni esker badakigu 1867. urtean Parisen «Nazioarteko erakusketa» egin zela, eta Verne hara joan zela behin baino gehiagotan. Erakusketa horretan, *Plongeur* urpeko ontzia erakutsi zen, 1863. urtean uretaratua eta, aipatu dugun moduan, bere *Nautilus*-a sortzeko abiapuntu gisa lagungarri suertatu zitzaiona [4]. Garai hartan, hala

ere, itsas azpiko abenturak ez ziren berriak. John Wilkins apezpikuak itsas azpitik bidaiatzeko ideiarri buruz idatzi zuen bere «*Mathematical Magick*» (1648) lanean, eta 1867. urteko urrian Aristide Roger-ek «*Aventures extraordinaires de Trinitus, ou le Voyage sous les flots, rédigés d'après le journal de bord de l'Éclair*» (Trinitus Jakintsuaren Abentura Miragarriak; 1868) nobela plazaratu zuen, eta han urpeko ontzi bat deskribatu zuen. Plagio susmoak alde batera uzteko asmoz (lehendik ere arazoak izan zituen), Vernek gutun bat plazaratu zuen urpeko ontzia duen nobela bat idazten ari zela argituz [4].

Nobelaren behin-behineko izenburua «Olatu azpiko bidaia» zen, baina bertsiio desberdinetan izenburua aldatuz joan zen. Liburuak luze joko du, eta, lehenengo bertsiota guztiz baztertuta, berriz zerotik idatzi zuen. Azkenik, nobela, 1869. urtean (lehenengo tomoa) eta 1870. urtean (bigarrena) plazaratu ziren. Momentura arte Vernek idatzitako nobelarik handiena zen, eta handiena da alderdi guztietatik begiratuta. Tamaina, pertsonaiak, animaliak, abenturak... dena da «bizitza baino handiagoa». Liburua idazten ari zela, eztabaida handiak izan zituzten Vernek eta Hetzel-ek Nemo kapitainaren inguruan. Dirudienez, Vernek Errusia gorrotatzen duen poloniar-tzat aurkeztu zuen Nemo kapitaina (garai haietan Errusia eta Polonia gerran zeuden), baina Hetzel guztiz aurka azaldu zen; izan ere, garai haietan Frantzia eta Errusia adiskideak ziren, eta Vernerren nobelaren errusierazko itzulpenak oso arrakastatsuak ziren. Beraz, Nemo pertsonaia misterioitsu bat bezala geratuko da liburuetan, haren jatorria argitu gabe. Verne eta Hetzel-en arteko harremanaren adibide garbi bat da hau. Hetzel-ek lanaren literatura-kalitatea gainbegiratzeaz aparte, negozioa bilatzen zuen. Vernek, ordea, ikuspegi idealistagoa zuen garai haietan, baina ia itsuki onartzen zituen Hetzel-en proposamen gehienak. Ez soilik lan honetan, beste askotan ere bai. Hala ere, Hetzel-ek nobelan kontu umoretsuak sartzea proposatzen zion Vernerri, baina honek ez zuen inolaz ere onartzen. Azkenean, nahiz eta beste lan batzuek («Bost aste globoan» edo «Munduari itzulia 80 eguntan») arrakasta handiagoa izan, «20.000 legoako bidaia itsaspetik» ere liburu arrakastatsua izan zen, bai publikoaren aldetik bai kritikaren aldetik ere.

Vernerren hainbat lanekin gertatzen den moduan, nobela honek lotura zuzenak ditu garaikide ziren gertakizunekin. Besteak beste, nobelan zehar Ferdinan Lesseps aipatzen da, zeinak 1869. urtean Suez-eko kanala irekitzen baitzuen edota Kretako iraultzan (1866-1869) otomandar inperioaren aurka altxatu baitzen. Arestian esan dugun moduan, Nemo bera errusiarren aurka (urtarrileko altxaketa; 1863-1864) borrokatzen zen poloniarra izatea proposatu zuen Vernek, beraz momentuko irakurleei oso erraza egingo zitzaizen Vernerren obrarekin identifikatzea. Itsas azpian arnasa hartzeko erabiltzen zituzten sistemak, adibidez, ere Benoit Rouquayrol-ek eta Auguste Denayrouze-k garatu zituztenetan (1865) oinarritzen ziren. Beraz, berriro

ere, Verneren lanetan fantasiak eta irudimenak momentuko zientzia eta teknikaren oinarri sendoa daukate, lanari nolabaiteko errealismoa eskainiz.

4.3. Verneren lana

Behin baino gehiagotan entzun dugu Verne zientzia fikzioaren aitzindari nagusia dela, Mary Wollstonecraft Shelley (1797-1851), Edgar Allan Poe (1809-1849) eta Herbert George Wells-ekin (1866-1946) batera. Hori egia den arren, badira desberdintasun esangarriak lau idazleen artean, eta Verneren obrak baditu bere-bereak diren hainbat ezaugarri.

Seguruenik, zientzia- edo abentura-idazlea izan aurretik, Verne geografiaren edo bidaien inguruko idazlea da lehendabizi. Nantes-en gaztaroa igarotzeak eta urrutiko lurraldeetatik etorritako itsasontziek arrasto garrantzitsua utzi zioten Verneri. Ez da arraroa, hortaz, nobela gehienetan bidaia handiak agertzea, bai Afrikan zehar («Bost aste globoan»), Errusiako estepetan zehar («Migel Strogoff»), Ipar zein Hego Amerikan zehar («*Le Pays des fourrures*»; Larruen Herrialdea; 1872; edo «*La Jangada*»; Jangada; 1880), Txina eta Indian barrena («*Les Tribulations d'un Chinois en Chine*»; Txinatar baten Estutasunak Txinan; 1879; edo «*La Maison à vapeur*»; Lurrunezko Etxea; 1880), mundu osoan zehar («Munduari itzula 80 egunetan») eta baita itsaso azpian («20.000 legoako bidaia itsaspetik»), zein lur azpian («Lurraren erdirainoko bidaia»), azkenik ilargira heldu arte («Lurretik Ilargira» edo «*Autour de la Lune*» (Ilargiaren inguruko Bidaia; 1870). Beraz, Vernek maite bat badauka, ez da zuzenean zientzia, baizik eta geografia bera. Verneren inguruko biografietan askotan azpimarratzen da haren nobeletan bidaia miragarriak agertzen diren arren berak apenas bidaiatu zuela bizitzan zehar. Hori hein batean egia bada ere (izan ere ezkondu eta gutxira Amiens edo inguruan bizitzen geratzen da), ez da egia osoa. 1860. urtean, adibidez, Eskozia eta Eskandinabia bisitatu zituen, eta 1866. urtean New York-era bidaiatu zuen itsasontziz (ondoren, esperientzia horrek «*Une Ville flottante*», Hiri flotatzailea; 1871, idazten lagundu zion. Gogoraz dezagun nabigatzea ere oso gustuko zuela, eta *Saint Michel* izeneko barku bat baino gehiago izan zuela. 1883-1884 urteetan Europan zehar nabigatu zuen oporraldi luze bat aprobetxatuz. Beraz, uste dena baino gehiago bidaiatu zuen Vernek bere bizitzan zehar. Eta esperientzia hori erruz baliatu zuen.

Beste alde batetik, bidaien eta abenturen zaletasun hori ere lotuta dago Johann David Wyss-en «*Der schweizerische Robinson*» (Robinson Suitzarra; 1812) nobelarekin. Hau da Vernek gogokoen duen nobela, eta haren obretan ohikoak dira naufragoen kasuak. Baina Verneren naufragoak beti dira gizon prestuak, langileak eta zientzia ezagutzak dutenak; horrela, beren probetxurako, modu aktiboan erabiltzen dute naturak eskaintzen diena. Vernek «*Magasin d'éducation et de récréation*» aldizkarirako

idazten zuenez, haren protagonistek dituzten abenturekin batera beti agertuko dira inguruko naturaren deskribapen zehatzak eta probetxuzko erabilpenak (jatekoak badira ere [8]). Vernereren liburuak irakurtzeak, hortaz, jakintza entziklopedikoa eskaintzen du, eta hori da, besteak beste, Hetzel-ek bere aldizkariarekin bilatzen zuena [7]. Zientziaren erabilpen posibilista eta baikor horrek eragin zuen beharbada «*Paris au xxe siècle*» (Paris XX. mendean) obra ez argitaratzea. Liburu hori 1863. urtean idatzi zuen, «Lurraren erdirainoko bidaia» baino lehen, baina Hetzel-ek atzera bota zuen hasierahasieratik. Liburuan, Paris imajinatzen du, 100 urte geroago (1960ko hamarkadan), eta etorkizunaren eta zientziaren ikuspegi erlatiboki negatiboa eta hitz tekniko ugariz hornitutako lana zela ikusirik, Hetzel-ek ez zuen inondik inora egokitzen jo, eta baztertzeko agindu zion. Berriz ikusten dugu Verne Hetzel-ekin bat datorrela eta liburuak ez zen 1994. urtera arte plazaratu. Urte batzuk geroago, Vernek «*Une fantaisie du Docteur Ox*» (Ox Doktorearen Fantasia bat; 1872) idatzi zuen. Liburu hau ez da bere «Bidaia Apartak» kolekzioaren barnean sartzen eta komedia tonua erabiltzen duen arren, Vernek nolabait zientziaren aurrerapenaren inguruko arriskuak edo behintzat haien inguruko zalantzak agertzen ditu lehendabiziko aldiz seguruenik. Are gehiago, 1879. urteko «*Les Cinq Cents Millions de la Bégum*» (Bégum-aren 500 milioiak; nahiz eta nobela honen jatorria berea ez izan) eta 1887. urteko «*Sans dessus dessous*» (Lurraren ardatza/Maston-en sekretua) lanetan modu argiago batean azaltzen ditu Vernek zientziaren erabilpen okerren inguruko kezkak eta zientzialariei buruzko zalantza etikoak. Dirudienez, Verne nagusituz doan heinean, zientzia eta zientzialarien inguruko ikuspegia aldatuz doa, eta erromantizismoa alboraturik, eszeptizismoa gero eta nabariagoa da.

Vernereren lanaren ikuspegiari dagokionez, behin baino gehiagotan egotzi zaio lan burges eta kontserbadore samarra duela. Haren historien protagonistek tresna miragarriak sortzen edota bidaia zoragarriak egiten dituzte, baina azkenean aldatu gabe bueltatzen dira «ohiko» mundura. Asmakizun edo bidaia horiek ez dute pertsonaiengan apenas eraginik izan, eta munduaren *status quo*-a berdin mantentzen da [9]. Nolabait Vernereren pertsonaiek (eta bera ere) munduan eroso bizi dira. Nemo kapitaina ideia honen adibide garbia da. Mundua goitik behera alda dezakeen urpeko ontzia asmatzen du, eta bere bizitzaren azkenengo uneak nolabait «etxeko zapatillekin, pipa bat erretzen beheko su baten aurrean» [10] igaro nahi ditu. H.G. Wells-en pertsonaiek eta haien asmakizunek mundua aldatzera edo iraultzara deitzen duten bitartean, Vernereren pertsonaiek berebiziko abentura izan ondoren, etxeko baldintza erosoetara bueltatu nahi dute [9]. Beste kritika bat ere egotzi zaio Vernereri: haren lana momentuko gizarteari eta momentuko aurrerapen zientifikoei modu estuan loturik egonik, emakumezko pertsonaien sorta oso mugatua da [4]. Bere ibilbidearen bigarren erdian, zientzietatik (edo behintzat zientzia purutik) pixka bat urruntzen denean, hain zuzen, Vernereren lanetan emakumezko pertsonaiek pisu handiagoa hartzea ekarriko

du. Hasierako lanetan, «Bost aste globoan» (1862), «Lurretik Ilargira» (1865), «20.000 legoako bidaia itsaspetik» (1869-1870) edo «Uhartetako misterioak» (1873) ez da emakumerik agertzen, edo behintzat agertzen badira ez daukate inolako garrantzirik historiaren barnean. Egoera hau ere guztiz bat dator garaiko zientzia eta tekniken garapenarekin, non gizartearen esparru horretan apenas agertzen baita emakumea. Aurrerago idatziko dituen lanetan, «Munduari itzulia 80 egunetan» (1872), «Migel Strogoff» (1876), «*Le Rayon vert*» (Izpi berdea; 1882) edo «Thompson Agentzia eta Konpainia» (1907) adibidez, emakumeek historian parte hartze askoz nabarmenagoa erakusten dute, eta normalean izaera sendoko emakumeak deskribatzen ditu. Baina oro har, Verne nobelagilearen lanetan (ez, ordea, benetako bizitzan: izan ere, hiru arreba eta bi alaba izan zituen) emakumeak bigarren maila batean azaltzen dira.

Genero berri baten sortzailetakoa bat izanik, Vernereren eragina urteetan zehar zabaltzen da. XX. mendean zehar, bere liburuak antzezlan, telebista-programa, komiki eta nagusiki filmeen oinarritzat erabili dira. Azken esparru honetan, zineman, Vernereren lanak dirdira berezia dauka. Georger Melies-en «Lurretik Ilargira» (1902) lanetik abiatuz Vernereren izena 169 aldiz ageri da [11] film eta telefilmekin. «20.000 legoako bidaia itsaspetik» ez da salbuespea, eta Nemo zein *Nautilus* ontzia 30 aldiz baino gehiagotan ageri dira pantailan [12]. Dauden bertsiok guztietatik, nire ustez, badira bi oso aipagarriak. Lehenengoa, 1916. urtekoa da, Stuart Paton-ek zuzendua eta zinemaren historian lehendabiziko aldiz ur azpiko eszenak dituen filma da. Filma «20.000 legoako bidaia itsaspetik» eta «Uhartetako misterioak» obren arteko nahasketa da, eta mende bat pasatu eta gero ere interesgarria da. Bigarrena, eta seguruenik ezagunena, 1954koa da, Richard Fleischer-ek zuzendua. Nobelarekin zerikusi handiegirik ez duen arren (soilik pasarte batzuk dira komunak) film bikaina da, eta Harper Goff-ek diseinatutako *Nautilus* ontzi zoragarria (3E. irudia) eta James Mason-en paperak Nemo kapitainaren rolean «bai ala bai» ikusteko filma bilakatzen dute. Dirudienez, momentu honetan (2019ko iraila) beste bertsiok bat prestatzen ari dira.

Arthur C. Clarkek esaten duen moduan, «historiaren une errepikaezin batean jaio zen», bai, baina bai ederki baliatu zuela!

5. ESKER ONAK

Pamela Ruizi bere gomendio, pazientzia eta etengabeko prestutasunagatik.

6. BIBLIOGRAFIA

- [1] KAKU M. 2005. *Parallel wolds: A Journey Through Creation, Higher Dimensions, and the Future of the Cosmos*. Dableday. New York.
- [2] VERNE J. 2002. *Las Aventuras del Capitán Hatteras*. S. Nerval-en itzulpena. RBA. Barcelona.
- [3] VERNE J. 2013. *20.000 Legoako Bidaia Itsaspetik*. Rosa María Gómez-en itzulpena. Anaya/Haritzza. Madrid.
- [4] LOTTMAN H. 2006. *Jules Verne*. Anagrama. Barcelona.
- [5] WIER S. K. 2013. *The Design of Jules Verne's Submarine Nautilus*. http://www.westernexplorers.us/Jules_Vernes_submarine_Nautilus.pdf. 2019-ko Maiatzaren 21ean eskuratua.
- [6] VERNE J. 2013. *Irla misteriotsua*. Rosa María Gómez-en itzulpena. Anaya/Haritzza. Madrid.
- [7] EVANS A. B. 2013. *Jules Verne's dream machines: technology and transcendence*. *Extrapolation* 54: 139-146.
- [8] ANGULO E. 2007. *Julio Verne y la cocina - la vuelta al mundo en 80 recetas*. Algabe. Madrid.
- [9] ROBERTS A. *The History of Science Fiction*. Palgrave Macmillan. London.
- [10] BARTHES R. 1972. *Mytologies*. Simon & Schuster. London.
- [11] Internet Movie Data Base. https://www.imdb.com/name/nm0894523/?ref_=fn_al_nm_1. 2019-ko Ekainaren 6an eskuratua.
- [12] Internet Movie Data Base. https://www.imdb.com/find?q=20,000%20Leagues%20Under%20the%20Sea&s=tt&ref_=fn_al_tt_mr. 2019-ko Ekainaren 6an eskuratua.